



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/09/01

Gernikako Batzarretxeak azken hamarkadako bisitari erregistro hoberena lortu dau, 49.308 pertsona hartu ditualako garagarrilean eta abuztuan

Udako bisitari kopuruak barrero erakutsi dau Gernikako Batzarretxeak erakarpenerako daukan ahalmena. Bizkaiko Batzarren egoitzako sarreraren kopurua azpimarragarria izan da joan dan garagarrilean eta abuztuan, azkenengo hamarkadako erregistro hoberena lortu da-eta. Holan, 49.308 bisitari izan ditu guztira, 2016an baino 4.665 pertsona gehiago, hau da, aurreko urteko epealdi berean baino %10,4 gehiago.

Gainera, bigarren urtez jarraian, atzerritarren erregistroen marka gainditu da. Igaz markarik altuena lortu eban, 2003an Batzarrek estadistikak ezarri ebezanetik, eta aurtengo udan mila pertsona ingurutan egin dau gora, 10.941 bisitarigaz.

Holan, Gernikako Arbolak atsedean hartzen dauen lekuak batez beste 795 bisita hartu ditu egunero azkenengo hilebete bietan. Batez besteko hori 950etik gorakoa izan da abuztuko egunetan. Hilebete horretan izandako bisitetatik, 15.794 andrazkoak izan ziran eta 13.823 gizonezkoak.

Batzarren egoitzea ezagutzera hurbildu ziran pertsonen %83 Euskal Herri kanpotik etorri zan. Udan, Batzarretxea eta inguruak beste autonomia erkidego batzuetatik eta Europako herrialdeetatik etorritako bisitariz beteten dira batez be. Garai horretako turismoaren ezaugarri nagusia gehien bat familiek osatutakoa dala da. Estaduko beste leku batzuetatik hurbiltzen diran bisitarien artean (guztien %61 hartzen dabe), gehienak katalanak dira. 7.360 katalanen ostean andaluziarrak (5.619), madrildarrak (5.482) eta valentziarrak (4.314) egon dira.

Atzerriko bisitarien jagokenez, Europako herrialde handiak dira, oraindino be, bisitari gehien bialtzen dituenak. Guztira 10.941 pertsona etorri ziran atzerritik, hazkunde nabarmena, Estadu kanpotik etorritako bisitari kopurua mila pertsona baino gehiagotan handitu da-eta. Beste herrialde batzuetatik etorritako udan Batzarretxera hurbiltzen diran pertsonen %22a beteten dabe daborduko, eta gehienak europarrak dira. Europarren ia herena, ondoan dogun Frantziatik etorri dira. Frantziarren ostean italiarrak, alemanak eta ingelesak etorri dira, ordena horretan.

Urtea amaitzean, Batzarretxeak barrero be 100.000 bisitariak gaindituko ditu, eta udako bisitarien, ikasturtearen gainerako garaian Batzarren egoitzea bisitetan daben talde ugariak gehitzen jakez. Holan, Bizkaiko hirugarren kultur eremu bisitauena da, Guggenheim eta Arte Ederren museoen ostean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
01/09/2017

La Casa de Juntas de Gernika logra su mejor registro de visitantes de la última década, con 49.308 personas entre julio y agosto

Las cifras de visitantes de la época estival han vuelto a constatar el enorme poder de atracción que posee la Casa de Juntas de Gernika. El cómputo de entradas en la sede parlamentaria vizcaína destacó durante los pasados meses de julio y agosto al lograrse el mejor registro de la última década, alcanzando una cifra total de 49.308, 4.665 personas más que en 2016, lo que supone un incremento global del 10,4% respecto al mismo periodo del año anterior.

Además, por segundo año consecutivo se ha batido el registro de personas extranjeras, que alcanzó el pasado año la cifra más alta desde que las Juntas establecieran estas estadísticas en el año 2003, y que ha crecido este verano en un millar de personas, con un total de 10.941 visitantes.

De esta forma, el lugar de descanso del Árbol de Gernika ha recibido una media de 795 visitas diarias durante los dos últimos meses. Esta media superó las 950 personas en las jornadas de agosto. Del total de visitas en este mes, 15.794 fueron mujeres y 13.823 hombres.

El 83% de las personas que se acercaron a conocer el recinto parlamentario provino de fuera de Euskal Herria. Durante el verano, la Casa de Juntas y sus alrededores se llenan especialmente de visitantes venidos de otras comunidades autónomas y países europeos, un turismo que durante esta época destaca por ser eminentemente familiar. Entre los visitantes que se acercan de otras zonas del Estado (representan el 61% del total), los catalanes son mayoría. A los 7.360 catalanes les siguieron andaluces (5.619), madrileños (5.482) y valencianos (4.314).

En cuanto a los visitantes extranjeros, los grandes países europeos continúan siendo los principales emisores. Fueron un total de 10.941 personas extranjeras, grupo que representa un notable incremento, con casi un millar más de visitas de personas de fuera del Estado. Los turistas venidos de otros países vienen a aportar ya el 22% de las personas que se acercan a la Casa de Juntas en verano, la inmensa mayoría europeos. De estos, casi una tercera parte provino de la vecina Francia. Por detrás de galos, y por este orden, se sitúan italianos, alemanes e ingleses.

Cuando finalice el año, la Casa de Juntas volverá a superar los 100.000 visitantes, uniéndose a los turistas estivales los numerosos grupos organizados que visitan la sede parlamentaria vizcaína durante el resto del curso, y convirtiéndose así en el tercer recinto histórico-cultural más visitado de Bizkaia por detrás de los museos Guggenheim y Bellas Artes.